

## 28. NAO - 2018ko otsailaren 8a

## 254. ALDIZKARIA - 2025eko abenduaren 23a (tarifaren aldaketa)

### 27. ORDENANTZA FISKALA, BARAÑAINGO UDALEKO HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA ALORRAK ANTOLATZEN DITUEN KIROL JOKOETAN IZENA EMATEKO ETA PARTE HARTZEKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

#### ***Oinarria.***

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatuari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikuluko baimenaren babesean.

#### ***Kontzeptua.***

2. artikulua. Prezio publikoak galdatuko dira, Udaleko Hezkuntza eta Prestakuntza Alorrak urtean antolaturiko "Barañaingo Kirol Jokoetan" –edo gisako beste izenik badute ere, hartantxe– parte hartzeko edo horietara joateko eskubidea ematen duten izen-emate edo antzeko beste edozein kontzeptu dela eta, prezio publikoak aplikatzeko beste ordenantzetan sartuta ez daudenean.

#### ***Kudeaketako eta diru-bilketako arauak.***

3. artikulua. Prezio publikoaren zenbatekoa ordainduko da izen-ematea edo matrikula egitean.

4. artikulua. Prezio publikoak jarduera antolatzeko oinarriek kasu bakoitzerako ezarritako moduan eta tokian ordainduko dira.

5. artikulua. Prezioa ordaintzera behartuta dagoenari leporatu ezin zaizkion arrazoiak direla eta, ikastaroa edo jarduera egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio. Gainerakoetan, behin betiko izen-ematea eginda, ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko.

### 2026KO TARIFEN ERANSKINA

Aplikaturiko diren tarifek ordainduko dute betiere, gutxienez, zerbitzuaren zuzeneko kostua; alegia, monitorearen edo zerbitzua ematen duen enpresaren kostua. Hiri-lantegiei dagokienez, aipaturiko tarifek gutxienez kostuaren %50 estali beharko dute. Erroldatu gabekoen tarifa izanen da zerbitzuaren zuzeneko kostua gehi %25